


**IV. EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA**

KATALOGOA
EREINTZA elkartea
Errenteria



CATALOGO

IV FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO
Año 1982 Urtea

IV. EUSKAL
HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

IV. FERIA
DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

KATALOGOA
CATALOGO

año
1982
urtea

L 982—ko Maiatzean ospaturiko IV. Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren Katalogoa, lerro labur hauen bidez aurkeztarakoan, Ereintza Elkartea sortu zeneko zilar—eztaiak aipatzea ere bidezkoa iruditu zaigu.

Izan ere horrelako ospakizunak beti dira egoki, Elkarte baten ekin-tzak berritu eta indartzeko. Asmo hori jarraiturik, urtekari hau ere diseinuz eta kalitatez obeagotua ikusten dugu, bere betiko helburuak zutik dirautela noski: Azoka bakoitzaren egitarau eta gertakizunen testigu izan, artisauen lanak eta bizikerak modu errez eta erabilgarri batean ematen diren aldi berean.

Bestalde, orain dela lau—bost bat urteko egoera ikusirik uste ez bezalako gorakada jaso du eskulangintzak gure artean, eta azkeneko hilabeteetan batezere lur eta merkatu berri bila ikusi ahal izan dugu. Horregatik aipatu nahi ditugu hemen, ainbeste urte luze eta neketsuetan, bere lanekin Euskal Eskulangintza mantentzen saiatu ziren artisauak. Gure oroimena beraz, hilabete hauetan betirako joan zaizkigun Miguel Larretxea, Nicolas Etxarte eta Francisko Urroz artisauentzat.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza eta Turismo Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Errenteriako Udalak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak eta Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak eskeinitako diru—laguntza, publikoki eskertu nahi dugu. Halaber parte harturiko artisauei eta bere laguntza eskeini diguten pertsoneri, beraiei esker ospatu ahal izan zen IV. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka eta argitaratu orain bere katalogoa.

Errenteria, 1983—ko Apirilak

EREINTZA ELKARTEA

AURKEZPENA
PRESENTACION

S irvan estas líneas como breve presentación del Catálogo correspondiente a la IV Feria de Artesanía del País Vasco, de Mayo de 1982, que ve la luz coincidiendo con las bodas de plata fundacionales de Ereintza Elkartea.

Esta celebración, normalmente generadora de cambios y renovaciones en las diferentes actividades que desarrolla Ereintza Elkartea, alcanza también a esta publicación que este año se presenta renovada en calidad y diseño. Sus objetivos de plasmar en letra impresa los pormenores de cada Feria, así como de divulgar de forma sencilla y didáctica los trabajos y datos de los artesanos participantes, se mantienen por el contrario invariables.

Hoy día, que vemos a nuestra Artesanía con un vigor y empuje insospechados tan sólo hace cuatro o cinco años, saliendo airosa y dignamente en busca de nuevas tierras y mercados, no podemos por menos de citar a aquellos artesanos que con sus trabajos, mantuvieron viva la Artesanía Vasca en momentos difíciles. Vaya nuestro recuerdo para Miguel Larretxea, Nicolas Etxarte y Francisco Urroz, que en este intervalo se han ido de entre nosotros.

Para terminar agradecer públicamente las ayudas económicas prestadas por la Consejería de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Rentería y Cajas de Ahorros Provincial de Gipuzkoa y Municipal de San Sebastián. Asimismo agradecer la presencia de los artesanos participantes y las colaboraciones particulares. Todos ellos han hecho posible tanto la celebración de la IV Feria de Artesanía del País Vasco, como la edición de éste su Catálogo.

Rentería, Abril de 1983

EREINTZA ELKARTEA

Hitz hauetan laburtzen du Larramendik Gipuzkoaren izatearen guna, bere Corografian gure lurraren ondasungoa, naiz materiala, naiz izpirituala, definitu nahi izan balu bezala. Beste probintziez beste horrenbeste esan daiteke, maila batetan ala bestetan. Euskaldunen oso lagun zahar eta zaila da burdina, eta, burdinarekin, sua. Burdinaren inguruan dira mitoak eta kontakizunak sortzen, hitzak lantzen, lege eta erakundeak jaiotzen, bizia eraikitzen... Bizitza eta bizibeharra, meagileak, ikazkinak, urtzaileak, burdinaren langileak. Burdinoletatik Labe Handietara eta lanabes-makina industria ugari desberdinera, mendetako kondaira luzea doa. Haseran harria izan zen, burdina eta altzairua gero, eta... hor gaude. Mea ez baina landutako produktoak kanporatzea zen XVIII mendean «Real Sociedad Bascongada» delakoaren jomuga. Gaur industria

berregitura beharraz hitzegiten dugu, burdin soilari balorea erantsi beharraz. Burdina gure kondairaren protagonista da, teknikarena, zientzia aplikatuarena, soziolojia, ekonomia eta politikarena, Foru eta agindu moldetan, basoa eta exportazioa babes zitzakeen legetan. Burdinarekin zer ikusirik duen industriaz osaturiko paisajearen protagonista.

Burdintingintzaren ahizpa ttipia da burdinaren artisautza, bere agerpen soilenetan iraganari leialki lotua. Artisautza apala, maitasunez landua, ez hain ugaria, eskuen, ingudearen, mailuaren eta sutegi ttipiaren laguntzaz, batipat, egiten dena. Egun hauetako erakusketan eta azalpenetan ikusiko duzue: burdintsareak, balkoiak, krisketak, zintzarriak, burdinkiak, plantxa zaharrak, haizkorak... zartagiak, haiztoak, palak eta pikotxak, igitai eta segak, gaurregun sailean egiten dira. Burdina, artisauaren eskutan, otzan, apal, iraunkor, gisakoi egiten da... baina neurri apal batetan funtzionala. Funtzionaltasuna are gorenago eta handiago da, artisauak, ala artistak, biak zain beretik datoz, Txillida izena daramanean: burdina urtu eta eraldatu egiten du, esanahi telurikoa eta kosmikoa, izpiritua, bere baitatik traszendentea eta betikotasuna ezartzen dio. Euskaldun eta burdinaren arteko epopeiaren gailurra da. Ser-teko muraletan taxutua.

Gipuzkoa, «gizonak eta burni». Burdina ugaldtu, hobetu egin da, baliagarriago eta gorengarriago bihurtu. Bidean galdera gelditzen zaigu: Eta gizona?

J. IGNACIO TELLECHEA

J. Ignacio Tellechea

HITZAURREA.
GIZONAK ETA BURNI
PROLOGO.
HOMBRES Y HIERRO

Con esas solas palabras resume Larramendi la esencia de Guipúzcoa en su Corografía, como si en ellas quisiese definir el patrimonio material y espiritual de nuestra tierra. La definición es extensible, en mayor o menor grado, a nuestras Provincias hermanas. El hierro es un viejísimo y difícilísimo amigo de los vascos, y con el hierro el fuego. En torno al hierro brotan mitos y leyendas, se forjan palabras, nacen leyes e instituciones, se construye la vida. La vida y la subsistencia: venaqueros, carboneros, fundidores, manipuladores del hierro. De las ferrerías a los Altos Hornos y a la variadísima industria de la máquina-herramienta: es una larga historia de siglos. Primero fue la piedra, luego vino el hierro y el acero... y ahí estamos. No exportar mineral, sino productos manufacturados, era la consigna de la Real Sociedad Bascongada en el siglo XVIII. Hoy seguimos hablando de reconversión industrial, de añadir valor al hierro bruto. El hierro es protagonista de nuestra historia: de la técnica, de la ciencia aplicada, de la sociología, de la economía, de la política, en forma de Fueros y ordenanzas, leyes protectoras de los bosques o de la exportación. El protagonista de nuestro paisaje guipuzcoano, sembrado de industrias que tienen que ver con el hierro.

Hermana menor de la metalurgia es la artesanía del hierro, contumazmente fiel al pasado en sus formas más humildes. Artesanía humilde, hecha con amor, en pequeñas cantidades, con la ayuda primordial de las manos, del yunque, del martillo, de la pequeña fragua. La vereis estos días en una exposición y en exhibiciones de artesanos: rejas, balcones, picaportes, cencerros, herrajes, hoces y guadañas, hoy se fabrican en serie. El hierro en manos del artesano se hace manso, humilde, resistente, humano... aunque modestamente funcional. La funcionalidad es más alta y noble cuando el artesano o artista —vienen de la misma raíz— se llama Txillida: Funde y transforma el hierro, le imprime mensaje telúrico y cósmico, espíritu, trascendencia de sí, eternidad. Es la cima de la epopeya del vasco y el hierro, plasmada en los murales de Sert.

Guipúzcoa, «hombres y hierro». El hierro ha mejorado en cantidad, calidad, utilidad, ennoblecimiento. Nos queda en el aire la pregunta: Y ¿el hombre?

J. IGNACIO TELLECHEA

J. Ignacio Tellechea

IV. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKAREN EGITARAUA

ERAKUSKETA

- BURNI ESKULANGINTZA EUSKAL HERRIAN. Donostiako San Telmo Museoak eta Manuel Laborde, Fermín Leizaola, Edorta Kortadi eta Juan José Zabala Jaunek utzitako ehun piezen inguruko erakustegi zabala. (Nekazalgo tresnak eta burnikiak, lanabesak, langailuak, etxegintzarako gaiak, etxe-tresnak, etabar).

HITZALDIAK

- BURNIA ETA GU. Hizlaria: José Ignacio Telletxea Idigoras.
- ESKULANGINTZAREN ORAINA ETA GEROA EUSKAL HERRIAN. Mahingurua. Partehartzaileak: José Luis Alonso eta Francisco Martín Ayestarán, artisauak; Alfonso López, Berrizeko Eskulangintza Azokaren antolatzailea, Fermín Leizaola, etnografoa; Koro Garmendia, arte-kritikoa. Moderatzailea: Antontxu Sainz.
- ARTISAUEN BATZARRA, Euskal Herriko Artisauen Elkargoaren erakuntzari hasiera emate arren.

FILMEAK

- HAIZKORA, M.^a Jesús Fombellidarena.
- GIPUZKOA, 1 eta 6 atalak (Gizona-Burnia), Pío eta Julio Caro Baroja anaienak.

EUSKAL MUSIKATRESNEN ENTZUNALDIA

- ALBOKA ETA TRIKITIXA, Arratiko Leon Bilbao, Mauricia Aldeiturriaga eta Tasio Arandia.
- XIRULA, Zuberoako Jean Mixel Bedatxagar eta Garat Arhane.
- TRIKITIXA, Azpeitiko Egurrola eta Epelde
- TXISTU, Billabonako Roberto Garate «El Eléctrico»
- DULTZINA, Tafallako Dultzineroak, Javier Oses, Antonio Aznar eta Fernando Alcoaz.

PROGRAMA DE LA IV FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO

EXPOSICION

- ARTESANIA DEL HIERRO EN EL PAIS VASCO. Amplio muestrario de unas cien piezas (aperos de labranza, útiles domésticos, herramientas, herrajes, útiles de trabajo, elementos de construcción, etc.) cedidos por el Museo San Telmo de Donostia y los señores Manuel Laborde, Fermín Leizaola, Edorta Kortadi y Juan José Zabala.

CONFERENCIAS

- EL HIERRO Y NOSOTROS. Ponente: José Ignacio Telletxea Idigoras.
- PRESENTE Y FUTURO DE LA ARTESANIA VASCA. Mesa redonda. Ponentes: José Luis Alonso y Francisco Martín Ayestarán, artesanos: Alfonso López, organizador de la Feria de Artesanía de Berriz; Fermín Leizaola, etnógrafo; Koro Garmendia, crítico de arte. Moderador: Antontxu Sainz.
- ASAMBLEA DE ARTESANOS, al objeto de iniciar la formación de la Asociación de Artesanos del País Vasco.

PELICULAS

- HAIZKORA, de María Jesús Fombellida.
- GIPUZKOA, partes 1 y 6 (El Hombre-El Hierro), de Pío y Julio Caro Baroja.

AUDICION DE INSTRUMENTOS AUTOCTONOS

- ALBOKA Y TRIKITIXA, León Bilbao, Mauricio Aldeiturriaga y Tasio Arandia, de Arratia.
- XIRULA, Jean Mixel Bedatxagar y Garat Arhane, de Zuberoa.
- TRIKITIXA, Egurrola y Epelde, de Azpeitia.
- TXISTU, Roberto Garate «El Eléctrico», de Billabona.
- DULZAINA, Javier Oses, Antonio Aznar y Fernando Alcoaz, dulzaineros de Tafalla.

AZOKAN PARTE HARTURIKO ARTISAUEN ZERRENDA ARTESANOS PARTICIPANTES EN LA FERIA

- Emilio Urkia (Idiazabal) – UZTA-RRIAK (Yugos)
- * Julio Irigoyen (Altsasu) – ABERE UZTAIAK (Collares de ganado)
- * Agustín Legorburu (Segura) – ESKUAREAK eta SEGA KIRTENAK (Rastrillos y mangos de guadañas)
- * Francisco Larretxea (Sunbilla) – KAIKUAK
- Francisco Urroz (Oitz) – ZUREZKO ZALIAK eta SARDESKAK (cucharas y tenedores de madera)
- * Pablo Iturgaiz (Pasai Antxo) – UPELAK (Barriles)
- Jesús Ruiz de Infante (Otxandio) – TEILATU HEGALEKO HABEAK (Canes o vigas de alero)
- * Fermín Anda (Bakaikoa) – ARGIZAIOLAK
- * Miguel Larretxea (Hondarribia) – MAKILAK (Bastones)
- * Ricardo Etxeberria (Abaltzizketa) – EGURLANTZA (Talla de madera)
- Román Aduriz (Errenteria) – ZUREZKO KATEAK (Cadenas de madera)
- * Agustín Antxordoki (Igantzi) – OTARGINTZA (Cestería)
- * Pedro Mari Galparsoro (Segura) – ZUME ESKULANGINTZA (Artesanía del junco).
- * José Angel Lasa (Legorreta) – XAREAK (Raquetas)
- Florentino Ibarra (Labaien) – ERREBOTEKO ESKULARRUAK (Guantes de rebote)
- * Jesús Otegi (Errenteria) – LARRUZKO PILOTAK (Pelotas de cuero)
- Juan Elgarresta (Gabiria) – LARRUZKO ABARKAK (Abarcas de cuero)
- Martín Jaime (Tolosa) – GOARNIZIOGINTZA (Guarnicionería)
- * Dámaso Rozas (Bera) – KOPETAKOAK
- * Domingo Goiburu (Idiazabal) – BASTEAK (Albardas)
- * Luisa San Román (Altsasu) – ARDAZKETA (Hilado a mano)
- Castora Agesta (Etxalar) – GORUETA (Hilado con rueca)
- * Justina Bringas (Elregato–Barakaldo) – GALTZERDIAK (Calcetines)
- * Quiteria Millán eta Joaquina Varela (Errenteria) – BOLILLOAK
- * Grupo «El Telar» (Donostia) – EHUNAK (Tejidos)
- * Club de Arte «Catalina de Erauso» (Donostia) – KURTSOINAK (tapices)
- * Dionisio Uzarraga (Hernani) – SAREAK (Redes)
- * Leandro Etxebeste (Hondarribia) – ESPARTZINAK (Alpargatas)

- * Miguel Azkarate (Tolosa) – ARGIZAIGINTZA (Cerería)
- * Pastelería Gorrotxategi (Tolosa) – MALBAZURI KAMELUA (Caramelo malvavisco)
- * Juan Carlos Ubarretxena (Donostia) – BOLAOAK (Bolados)
- * Familia Loiarde–Elizalde (Zubieta–Nafarroa) – TALOAK
- * Cesáreo Soule (Arizkun) – HARGINTZA (Cantería)
- * José Luis Alonso (Irun) – BEIRATEAK (Vidrieras)
- M.ª José Duarte (Irun) – OGIMIAREN ESKULANGINTZA (Artesanía con miga de pan)
- * Jorge Garnelo–Díez eta Cristina Zacchi (Zarautz) – PIKAILADURAGINTZA KOBREAN (Esmaltado en cobre)
- * Gregorio Aramendi (Zegama) – BUZTINGINTZA (Alfarería)
- * Manuel Vázquez eta M.ª Pilar Lodoso (Donostia) – IRUDIGINTZA (Imaginería)
- * Centro Cultural «Xenpelar» (Errenteria) – KERAMIKA (Cerámica)
- Nicolás Etxarte (Oiartzun) – EGURIKATZA (Carbón vegetal)
- BURNI ETA ANTZEKOAK – HIERRO Y AFINES
- (José Angel Otaegi (Billabona) NEKAZALGO TRESNERIA (Aperos de labranza)


- José Luis Fernández de Garaalde (Altsasu) NEKAZALGO TRESNERIA. (Aperos de labranza)
- José Luis Orbegozo (Astigarraga) – PERRAGINTZA (Herrado)
- Jesús Juanto (Zangoza) – BURDINLANTZA ARTISTIKOA (Forja artística)
- José Lanz (Bera) – BURDINLANTZA ARTISTIKOA (Forja Artística)
- * Francisco Martín Ayestarán (Elgorriaga) – LANPARAK eta ARGIONTZIAK (Lámparas y farolas)
- Javier Salaberría (Herrera) – ITSAS BURDINLANTZA (Forja naval)
- Daniel Lizaur (Iruñea) – BURMEGINTZA (Hojalatería)
- Ramón Barea (Donostia) – BURMEGINTZA (Hojalatería)
- Juan Luis Baroja (Eibar) – EIBARKO DAMASKINTZA (Damasquinado de Eibar)

OHARRA: * ikurra daramaten artisauak ez dira katalogo honetan aipatzen; lehendik I. II. edo III. Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren Katalogoetan sarturik bai daude.

NOTA: Los artesanos que llevan asterisco, no aparecen en el presente Catálogo, al estar incluidos ya en los Catálogos de I, II ó III Feria de Artesanía del País Vasco.

ARTISAUAK ETA LANGINTZAK

ARTESANOS Y ESPECIALIDADES



Artisaua: EMILIO URKIA TELLERIA

Jaioteguna: 1906, Abuztuak 6
Fecha de Nacimiento:

Helbidea: Inzaibar Baserria – IDIAZABAL (Gipuzkoa)
Domicilio:

Tel.: 80.15.94



Aurkezpen gisa:

Egurraren artisau giroko familian jaioa, bere aitona zurgina bait zen. Hogei urte zituela hasi zen uztargintza ikasten aitaren eskutik. Uztargintzan, baserriko lanak alde batera utzi gabe, Sakana, Arantzazu edo Bizkai muga aldeko lurraldeak korritu ditu urtez urte.

Gaurregun egiten dituen neurri desberdineko uztarri gehienak apaingailu bezala egin ohi ditu.

Otros datos:

Nacido en una familia de tradición artesana en el trabajo de la madera, ya que su abuelo era carpintero, inicia a la edad de 20 años y de manos de su padre el aprendizaje de la fabricación del yugo. En el ejercicio de esta actividad ha recorrido durante años los pueblos de las zonas limítrofes de la Barranca, Arantzazu o la muga de Bizcaya, compaginándola con las labores propias del caserío.

Hoy día la mayor parte de los yugos, que fabrica en diversos tamaños, los vende para adorno.

UZTARRIA

Munduko zenbait lurraldetan (Asian, Afrikan, Europaren Sortaldean, Mediterraneo Herrietan) erabiltzen diren uztarriekin gonbaratuz, eta kidekorik ez duela-rik, Euskal Herrian erabilia adarretarako da. Lepahezur gainean ipini eta adarrei lotzen zaiote. Ofizio guztietan bezala, uztargileak bere metodoak eta lan egiteko era ditu. Artisau hauek sarritan baserrietara joan ohi ziren lana bertan egiteko. Horrelakoetan mantenua eta egurra, pagoa gehienetan, eroslearen kontura ziren. Hogeitamargarren urtetan uztargile honek duro bat kobratzen zuen uztarri bakoitzeko.


Uztarriak desberdinak diren arren, (ganadu bakarra ala birentzat, idi ala behientzat, gurdi ala goldearentzat), bai diseinua bai uztargintzaren teknika berdintsua da uztargile denetan. Haizkora, mazua, opatxurra, kubiak eta tatulua ditu erabiltzen lan honetan. Neurriak hartzeko makila bat, ezeren metriko zatirik ez duena, ibiltzen du. Jakingarri denez, diogun artisau honek darabilzkienez erramintak duela ehun urtetik gorakoak direla.

YUGO

A diferencia de otros yugos utilizados en diversas partes del mundo (Asia, Africa, Europa Oriental, Países Mediterráneos, etc.) y entre los que no encuentra congéneres, el yugo vasco es cornal: se apoya sobre la nuca sujetándose a los cuernos.

Como cada oficio, el de yugero o «uztargile» conlleva sus propios métodos y costumbres de trabajo. Así estos artesanos se trasladaban frecuentemente a los caseríos, para realizar el trabajo «in situ». En estos casos la manutención y la madera a emplear (generalmente de haya) corrían a cargo del cliente. En los años 30, los honorarios de este artesano eran de un duro por yugo.

Aunque se confeccionan distintos tipos de yugos según el uso al que se destinen (individual o doble, de buey o vaca, de carro o de arar), la técnica de su ejecución y el diseño básico son muy similares en todos los artesanos. El hacha, el mazo de madera, la azuela, el serrote, las guías y formones y el barreno son las herramientas comúnmente utilizadas. Para tomar las medidas se emplea una vara de madera, que no lleva división métrica alguna. Como curiosidad citar que las herramientas con las que trabaja este artesano tienen unos cien años de antigüedad.



BIKO UZTARRIA

Artisaua: FRANCISCO URROZ

Jaioteguna:
Fecha de Nacimiento: 1906, Otsailak 2 (1983, Apirilak 1-ean hila)

Helbidea:
Domicilio: Etxe-Zaharrea Etxea - OITZ (Nafarroa)



Aurkezpen gisa:

Bere aita zurgina zen arren, Frantzisko Urrozek bere lehen lanak mendian ematen ditu ikazkintzan eta antzeko zereginetan. Hogeita hamarren bat urte ditu aitarekin lanean hasten denean, eraikintzarako zurgintza lanetan bati-pat. Oraintsu samar hasia da artisau autodidakta gisa, neurri eta erabilkera desberdineko kutzare eta tenedoreak, eta beste zenbait gauza (karrakak adibidez) egiten.

Aipatzekoa da oraintsu arte Oitzen kutzaregile bat bizi izan dela, Gaztelu Berritik (Almiradio de Navascues-tik), eskulangintza honetan hain ezaguna den nafar lurraldetik, etorria.

Otros datos:

Aunque de padre carpintero, los primeros trabajos de Francisco Urroz se desarrollan en el monte, bien como carbonero o en ocupaciones similares. No será hasta la edad de 30 años que empiece a trabajar junto a su padre, dedicándose principalmente a la carpintería de construcción. Su actividad como artesano autodidacta de cucharas y tenedores de diversos tamaños y utilidad, así como otros productos (carracas, etc.) es muy reciente. Normalmente vende su producción en casa.

Señalar que en Oiz ha vivido hasta fecha reciente un artesano cucharero procedente de Castillo Nuevo (Almiradio de Navascues), zona navarra de gran tradición en esta artesanía.

ZUREZKO ZALIA ETA SARDESKA

Orain dela hamarkada gutxi arte Euskal Herriko nekazari lurraldetan ugari erabili izan da zurezko kubierto hauek. Artzainek, esate baterako, sarritan ekin izan diote horrelako zurezko piezak egiteari, eta zenbaitetan baita taila lan bikainik egin ere. Bakanen bat edo bestek eginiko lanaz aparte, zenbait herrietako ekonomian garrantzi handia izan duen industria ere egon da honen inguruan.

Zalia edo kutxaroia eta sardeska, diseinutan desberdina izan bada ere, tipo berdintsukoak egin izan da. Kakoduna edo zilarrezkoa zeritzana eta xapala edo kiarra zuzenekoa. Ezpel eta gurbia erabili izan da gehienbat lan hauetan. Urrian edo Azaroan, zuhaitzak izerdirik ez duen garaian, mozten da eta zatitan ebakitzen.

Sekzio bakoitzetik bi edo hiru puska egingo dira beste hainbat pieza egiteko. Lehenik moldeatuz forma ematen zaio, aho zuloa egin, kiarra neurrira gastatu, baita ahoaren kanpokaldea ere, lehundu eta lijatu, horra hor lan honetan ematen diren pausuak. Sardeska egiterakoan are zailtasun handiagoa izan ohi du. Hortzak lehuntzean hausteko arriskurik bait dute. Horrenbestez artisauak eginiko lan guztia alferrik galduz.


CUCHARA Y TENEDOR DE MADERA

Hasta hace pocas décadas, los cubiertos de madera se han utilizado profusamente en las zonas rurales del País. Los pastores por ejemplo, han sido muy dados a la confección de este tipo de piezas, algunas de ellas con primorosos trabajos de talla. Pero junto a esta producción de uso particular, ha existido una industria artesanal que ha tenido gran importancia en la economía de algunos pueblos.

Los tipos de cuchara o cucharón y tenedor confeccionados, aunque con variantes de diseño, han sido básicamente los mismos: el tipo de vuelta o hechura de plata y el llano o de mango recto. El boj y el madroño son las maderas habitualmente usadas en esta labor. Recogidas en Octubre o Noviembre, cuando el árbol no tiene savia, se cortan en secciones, de las cuales se harán dos o tres pedazos para otras tantas piezas.

El moldeado de la forma, el vaciado de la boca, el desbastado del mango y parte exterior de la boca, el refinado y el lijado son las fases de ejecución de esta labor.

El trabajo de hacer el tenedor tiene unas dificultades adicionales en el refinado de las puas, puesto que al menor descuido éstas pueden romperse, hechando a perder todo el trabajo anterior del artesano.



ZALIGINTZA

Artisaua: JESUS RUIZ DE INFANTE LANZALUZE

Jaioteguna: 1927, Uztailak 9, EKORA (Araba)
Fecha de Nacimiento:

Helbidea: Carnicería Kalea, 29 – OTXANDIO (Araba)
Domicilio:

Telf.: 45.00.74



Aurkezpen gisa:

Taila lanerako gogoak eraginik hamasei urte dituela hasten da ofizioa ikasten Bilboko Arte Eskolan. Geroztik, etengabeki, eskulangintzatik bizi da. Egur taila lanetan aberatsa da: teillatu ertze edo hegaletako habe taila apainak, kutxak, atabaskak, taloaskak, (artzainek erabili izan dituzten egurrezko plater kirtendunak), pilotarako palak, erlauntzak.

Bere lanak, gehienetan enkarguz eginak, Bilbo, Gasteiz edo Madrid bezalako hiritan saltzen ditu.

Otros datos:

Tallista por vocación, empieza a la edad de 16 años el estudio y aprendizaje de este oficio en la Escuela de Arte de Bilbao. Desde entonces y de forma ininterrumpida vive de esta actividad artesanal. Su producción abarca una variada gama de trabajos de talla y madera: canes o vigas artísticas para los aleros, «kutxas», «atabaskas» o «taloaskas» (platos de madera, con mango, usados por los pastores), palas para el juego de la pelota, colmenas, etc.

Vende sus productos, casi siempre por encargo, en ciudades como Bilbao, Vitoria o Madrid.

TEILATU HEGALEKO HABEA

Egurraren taila alorrean lortu du euskal arte herrikoiak gorenengo maila. Honi eskerrak, bai lan dekoratiboak bai lan sollak, sarritan artisauaren eskuz, aberastasun handiko arte lanetan bilakatzen dira. Euskal Herrian Erdi Aroan garatuz doan euskal estiloa —Zumarragako Antigua eliza bezalako lan adierazgarriak barne—, XVIII. mendean iristen da bere gailurrera gizarte giro lasai eta aberats batekin batera. Natura eta izadiarengandik jasotako izakien irudilanak, esanahi sinbolikoz ipiniak seguraski, eta batez ere motibo simetrikoak, zuzenezkoak, kurboak eta konposatuak dira euskal tailagintzaren oinarri.


Bere lanetan egur ona ibiltzen du artisau honek, haritza eta intxaurra, zenbaitetan, jakineko lan batzuk egiteko, pagoa. Mendian moztutzen du Abendu eta Urtarrila hilabetetan, hilbeheran, eta lanean hasi baino lehen urte pare batetan bertan uzten du egurra ondu dadin. Bai bere sorkuntza lanetan, bai antzinatik jasotako modeloetan, euskal arte klasikoaren ezaugarria darama. Eginiko lanari zahar itxura kolorante berezi batek damaio.

CAN O VIGA DE ALERO

Uno de los campos donde el arte popular vasco ha alcanzado un mayor desarrollo es el tallaje de la madera. Debido a él, tanto el objeto decorativo como el de mero uso se convierten con frecuencia en manos del tallista en obras de gran riqueza artística. Este estilo vasco que se va configurando durante toda la Edad Media —con magníficos exponentes como la iglesia de la Antigua de Zumárraga—, adquieren su máximo desarrollo en el siglo XVIII, a tenor de la estabilización social y la prosperidad de las familias rurales. La reproducción de seres naturales o vegetales de probable significado simbólico y sobre todo los motivos simétricos rectos, curvos y compuestos son la base del tallado vasco.

Este artesano utiliza en su trabajo maderas nobles como roble y nogal o también haya para algunos trabajos específicos. Cortada en el monte en los meses de Diciembre y Enero, en tiempo de luna menguante, la tiene allí durante un par de años hasta que cure debidamente antes de empezar a trabajarla.

Tanto en las creaciones propias como en las copias de modelos antiguos, el diseño de las tallas responde al clásico vasco. El aspecto antiguo de las piezas, lo consigue mediante la aplicación a las mismas, de un colorante especial.




Artisaua: ROMAN ADURIZ MITXELENA

Jaioteguna: 1930, Abuztuak 2, OIARTZUN (Gipuzkoa)

Fecha de Nacimiento: Agustinas Hiribidea, Portal C-3º Ezk. ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Domicilio: Telf.: 51.88.21



Aurkezpen gisa:

Gazteta bere jaiotetxeko baserri lanari lotua, hogeita bi urte dituen arte ez da, ogibide bezala, eraikintzari zezendutako zurgintza tailer batetan lanean hasten. Hemen eskulangintza-aren afizioa eta argitasun handiko lanak egiteko joera, ermetzen zaio. Behin batez, pieza batetan eginiko egurrezko katea ikusi zuen halabeharrez, eta nola zitekeen jakiteko mina sortu zitzaion.

Egungo katejabearen Oíartzungo, Oiartzabal jaunaren aitak egin zen duela ehunen bat urte, 1881-ko Irailean, Irunen ospatutako Euskal Jaietan. Eskulan honek lehen saria irabazi zuen.

Otros datos:

Dedicado durante su mocedad a las labores de su caserío natal, no será hasta la edad de 22 años, cuando inicie su vida profesional como carpintero, en un taller dedicado fundamentalmente a trabajos para la construcción. Aquí se despierta su afición por los trabajos artesanales y las tareas delicadas. La casualidad de haber visto una cadena de madera, hecha toda de una pieza, le lleva a iniciar por su cuenta el descubrimiento de su ejecución.

Dicha cadena había sido realizada por el padre de su propietario actual, Sr. Oyarzabal de Oiartzun, hace unos 100 años; concretamente en las Fiestas Euskaras celebradas en Irún en Setiembre de 1881. Esta labor artesanal recibió entonces el primer premio.

ZUREZKO KATEA

Zurez egin ohi diren eskularen artean, era honetako kategintzak, besteak maixinbratuz eta enkolatuz egiten diren bezala hau pieza batez egin bait da, halako jakinmina sortarazten du ikuslearen baitan, bai hain orijinala den aldetik, bai berekin duen zailtasuna eta eskatzen duen pazientziagatik. Dekorazio zereginetan erabiltzen da gehienbat, barandatan, lanpara, tiesto eta abarren zintzilikarlotan.

Langai bakar bezala urkia darabil artisauak (abebaia ere bai batzutan). Abenduan hilbeheran mozten du egurra, eta 4,5 zm neurriko koadradillo bat prestatzen du. Ertzetatik jaten dionari eskerrak gurutz formako egurra gelditzen zaio, bertako besoak landuz ekiten dio kategintzari. Haserako mailari gako forma damaio, eta bukaerakoa, zertarako erabiltzen den ikusi egin behar, forma desberdinik izan dezake. Azkenik, katea lixatuz eta lehunduz amaitzen du lana.


Halzkora, trintxa, neurri desberdinetako zerrak, barrenoa, mazoa, horra hor bere erraminta erabilienak.

CADENA DE MADERA

Dentro de la diversidad de trabajos artesanales que se realizan con la madera, la fabricación de estas cadenas, que a diferencia de las que se hacen por machiembado y colado se sacan todo de una pieza, es una de las tareas que más curiosidad despierta en el espectador, tanto por su originalidad como por la dificultad y paciencia necesarias para su ejecución. Destinadas a un uso eminentemente decorativo, se pueden utilizar como barandas de estrados, colgantes de lámparas, tiestos, adornos, etc.

En su confección el artesano utiliza como única materia madera de abedul (también de abebay), que recoge en Diciembre, en tiempo de cuarto menguante y que posteriormente prepara en forma de cuadradillo de 4,5 cms. de lado. Cortando sus cuatro esquinas, forma una cruz central, sobre cuyos brazos irá trabajando los distintos eslabones. El primero en forma de gancho y el último según el uso al que se destine. Con el ulterior lijado y pulido de los mismos dará por finalizada la tarea.

El hacha, formones y serruchos de distinto tipo, el mazo y el barreno son las herramientas usadas en esta labor.



Artisaua: FLORENTINO IBARRA GOÑI

Jaioteguna: 1925, Urtarrilak 25, SUNBILLA (Nafarroa)

Helbidea: Apeztene-Goia Etxea - LABAIEN (Nafarroa)

Tel.: 59.40.77



Aurkezpen gisa:

Hemeretzi urtetan hasten da zapatarari ofiziala ikasten Doneztebeko Inazio Bertzen taileretan. Gaurregun ogibide berdinari jarraitzen dio. Oinetakoak egiten eta konpontzen ikasiz, erreboteko guantegintzaren teknikaz ere jabetzen da, baina lan hau, ia 'eskaerarik ez bait zuen horretarako, urtetan ia erabat abandonaturik izan du.

Gaurregun, enkarguz egiten ditu ia lanik gehienak eta Baztan eta Iparraldean saltzen ditu, hots, errebotean jokatzeko den tokitan. Bere lanak apaingarri gisa ere saldu ohi ditu.

Otros datos:

A la edad de 19 años, inicia el aprendizaje del oficio de zapatero en el taller de Ignacio Bertiz de Santesteban, oficio éste que mantiene en la actualidad. Allí junto con la confección y arreglo del calzado, aprende también la técnica del guante de rebote, cuya producción (por falta de demanda) ha tenido durante años prácticamente abandonada.

Hoy día su mercado natural de venta, generalmente por encargo, lo tiene en el Baztán y en Euskadi Norte, es decir en las zonas que practican con cierta asiduidad este juego. También los vende como adorno.

ERREBOTTEKO ESKULARRU EDO GUANTEA

Kiroletako euskaldunak izan duen sor-kuntza indarretik pilota joku desberdinak sortarazi dizuen erraminta desberdina moldatu ditu. Hauetariko bat eskularrua da, zumez eginiko xistera baino lehena-gokoa, pasaka eta laxua jokueran, hots luzera eta errebotean, erabili ohi dena. Errebotiaz guztien artean gorenena eta ederrena dela esan izan da.



Eskularrua egiteko, neurria eta forma alde batetara utziz, abelgorri larrua erabiltzen du. Artisau honek bostehunen bat kiloko zekorlarruz egiten ditu. Larrua prestatzeko karesne bizitan sartzen du eta bertan zoortziren bat egunetan edukitzen. Ondoren azala kendu eta lehortzen uzten du. Ondoren larrua berriz busti eta molde bati gogor eta indarrean lotzen zaio lehortzen denean beharrezko duen forma kurboa har dezan. Operazio berdina egingo du beste kapa bat ezarriz. Eskuzorroa, pilotariak eskua sartuko duen tokia, aparte prestatzen du eta larru biren artean sartuz hestu hestu lotzen. Likaz igurtzitako kalamuz josten da ertz osoan. Amaitzeko eskularruari halako hori kolorea ematen dio argizagiz eta azafrai kolorantez igurtziz.

GUANTE DE REBOTE

Del genio creador vasco para el deporte han surgido variadas herramientas que han dado lugar a distintas modalidades del juego de la pelota. Una de estas herramientas es el guante de cuero, anterior a la cesta de mimbre o «xistera», que con distintos tamaños y formas se utiliza en las modalidades del «pasaka» o largo y rebote. De este último juego se dice que es el más noble y hermoso de todos.

Para la confección del guante, independientemente de su forma y tamaño, se emplea piel de ganado vacuno: este artesano utiliza la de ternero de unos 500 Kgs. de peso. Para curarla la introduce en una lechada de cal viva, donde la tiene en remojo unos ocho días, tras los cuales la despela y la deja secar. Seguidamente humedece de nuevo el cuero y lo coloca bien fijo y estirado en un molde de madera, para que al secarse coja la forma curva definitiva, repitiendo la misma operación con una nueva capa que adosa a la anterior. Preparada aparte la manopla donde irá la mano del pelotari, la cose entre las dos capas de cuero. Juntas éstas se cosen en todo el contorno con hilo de cáñamo untado en pez. Para terminar dará un tono amarillento al guante, mediante la aplicación de cera y colorante de azafrán.

eskuzorroa



Artisaua: JUAN ELGARRESTA MURUA

Jaioteguna: 1941, Urriak 22, URRETXU (Gipuzkoa)

Helbidea: Asti-Zain Baserria - GABIRIA (Gipuzkoa)

Telf.: 88.38.04



Aurkezpen gisa:

Urretxuko Donardegi baserrian jaioa, artzantza eta nekazaritzatik bizi izan da lanabesak prestatzen ohiturik dagoen familia batetan. Hamabi urte zituela hasi zen eskulangintza lanetan ikasten aitonaren erakutsiz, zeinak bai bait zekien ereak eta kurtreak egiten.

Gaurregun fabrikaiko eta baserriko lanarekin batera, artisau lanak egiten ditu, batez ere folklore eta dantza taldek eskatzen diotenean.

Otros datos:

Nace en el caserío Donardegi de Urretxu, en el seno de una familia de pastores y labradores, acostumbrados a la fabricación de variados objetos útiles para sus respectivos trabajos. Así pues, desde muy joven, a la edad de 12 años, comienza el aprendizaje de esta actividad artesanal de manos de su abuelo, que también realizaba algunos tipos de guarniciones como las «ereak» o coyundas del yugo y las «kurtreak» o correas para la pértiga del carro de bueyes.

Compagina esta actividad con el trabajo de la fábrica y el caserío. Su producción, generalmente por encargo, se destina fundamentalmente a las actividades folklóricas, grupos de danzas, etc.

LARRUZKO ABARKA

Larru puska batez egina, antzinatek artzain eta baserriarrek gehienbat erabili izan duten oinetakoa da. Larramendik dioenez Senecak aipatzen omen du oinetako hau kantauritarren oinetako bezala. Egia esan, gomazko oinetakoa azaldu zen arte, gure herri gehienetan bazen abarkagileren bat.

Gaurregun, oraintsu arte batez ere eskuz landutako behi larrua erabiltzen bazen ere, ardilarruz egin ohi dira. Artisauak belau gainean ipinitako taula errektangular batetan egiten du lan. Plantila trapezoidalez baliatuz gogozkoa duen neurrira mozten du larrua neurrira markatu ondoren. Ondoren ertzak, puntak, barru aldera biltzen ditu, eta ertz-inguru guztia zulatu eta larruz josten ditu. Azkenik, algodoizko korbeltza ipintzen dio beronen bidez hankari lotu ahal izateko.

Bere aitonak kontatu izan zion usadio batek dioenez, jai egunetan abarkaren puntan «begiak» deituriko bi larru tira jostirik eramane behar izaten omen zen.

ABARCA DE CUERO



La «abarka» de cuero de una sola pieza ha constituido desde antiguo el calzado comunmente usado por los pastores y baserriarros del País. Según Larramendi este calzado es citado ya por Séneca como propio de los cántabros. De hecho, hasta la aparición del calzado de goma, casi todos nuestros pueblos contaban con la presencia del «abarkagile».

Hoy día en su confección, la badana engrasada ha sustituido en gran parte como materia prima al cuero de vaca curtido a mano que se venía utilizando hasta fechas recientes. El artesano trabaja sobre una tabla rectangular colocada sobre las rodillas. Valiéndose de unas plantillas de forma trapezoidal, marca y corta el cuero a la medida deseada. Seguidamente dobla hacia dentro los extremos para formar la punta de la abarka y agujereando todo el contorno lo coserá con una tira de cuero. Finalmente colocará el cordón de algodón negro que servirá para atarla al pie.

Según una vieja tradición contada por su abuelo, las abarcas usadas los días de fiesta, debían llevar cosidas en la puntera dos tiras de cuero negro, llamadas «begiak» u ojos.



moldia



begiak

Artisaua: MARTIN JAIME ETXEBERRIA

Jaioteguna:
Fecha de Nacimiento: 1912, Apirilak 5

Helbidea: Conde Ibar Kalea, 2 – TOLOSA (Guipuzkoa)
Domicilio:
Telf.: 67.06.14



Aurkezpen gisa:

Bere zeregin nagusia larru eskulangintza lane-kin lotua egon da. Hamalau urte dituela hasten da familiaren Tolosako tailer-dendan ofizioa ikasten, bere aita Juan Jaimeren eskutik. Honek, Iruñeako maisu batek erakutsi zionari esker zekien lan hauen berri. Bertan goarnizogintzari dagozkion era guztietako gauzak egin, eta konpondu, ohi ditu, ganaduekiko tresnak, industriaren eskabideari erantzunaz eginiko lanak, boltsuak, antzekuak, etabar.

Otros datos:

Su actividad profesional ha estado siempre ligada a la artesanía del cuero. A los 14 años empieza el aprendizaje del oficio en el taller-tienda familiar de Tolosa, iniciado por su padre Juan Jaime, que había aprendido estas labores con un maestro de Pamplona.

Allí se fabricaban y arreglaban toda clase de enseres propios a la guarnicionería: desde diversos arcos para las bestias y caballerías o elementos para la industria, hasta objetos de uso personal como bolsos y similares.

GUARNIZIOGINTZA

Antzinatik dator gizonarengan bere premiei erantzuteko aberelarruz baliatzeko joera. Horrela guarnizogintza, hots gizonaren zerbitzuan erabilitako abere eta zamariantzako, bai bere pausu eta mugiera naturala errazteko, bai ezeren takateko edo arramaskarengandik babesteko, larru tresneria egin duen eskulangintza zabal bezain ugari izan da.

Eskulangintza ofizio honek, zenbait tokitan halako arrotz kutsukoa izan bada ere, eragin handia izan du Gasteiz eta Iruñea bezalako hiritan.

Lanerako gai nagusia mota esberdinetako larrua da eta kalamua. Larrua neurriira moztu eta landu eta gero ede, koi-lare, zaldi karruarentzako koilaroiak, kopetako, kurtreak, eta abar egiten dira. Piezaok belarriz, errematxez, larru puskez, zintzarriz, artile bolaz, apaindurik egon ohi dira, artisauaren irudimen eta gustuak agintzen diotenaren arabera eginak.

Errematxatzeko ingudea, moztutzeko makina, igitai formako labainak, uñetak, harajak, josteko puntzoiak, lau aiekako eztenak, horra hor artisauaren erramintik erabilienak.

GUARNICIONERIA

El aprovechamiento de la piel animal por el hombre, para cubrir diversas necesidades viene de antaño. En este sentido la guarnicionería, es decir la artesanía de confección de arcos para las bestias y caballerías, con el fin de facilitarles sus movimientos naturales y preservarles de roces o golpes perjudiciales en sus tareas de servicio al hombre, ha sido de los de más vasta aplicación.

En el País Vasco este oficio, que en algunas zonas ha tenido trato de foraneo, ha contado sin embargo con áreas de ubicación importantes en Vitoria y Pamplona.

La materia prima básica utilizada es la piel y el cuero de diversas clases y el hilo de cáñamo. Con estos elementos, debidamente cortados y trabajados, se confeccionan enseres, tales como: cabestros, collares, collarones para el carro de caballos, «kopetakos» o frontales, «ereak» o coyundas del yugo, «kurtreak» o correas para la pértiga del carro de vacas, etc. Como adorno, estas piezas llevarán hebillas y remaches dorados, pedazos de cuero recortados, cascabels, bolas de lana, etc. de acuerdo al gusto e inventiva del artesano.

El yunque para remachar, la máquina para cortar, las cuchillas media luna y uñeta, diversas navajas, diferentes puntzones de cosido y la lezna de cuatro caras, son las herramientas comúnmente usadas en el oficio.

Artisaua: CASTORA AGESTA BARANDIARAN

Jaioteguna: 1911, Apirilak 17

Helbidea: Iñarreta Kalea – ETXALAR (Nafarroa)



Aurkezpen gisa:

Garai batetan baserrietan hain hedatua zegoen irun lana egiten ttipitandik ikasten zen haurren hezketari bailegokion, zeregin bat gehiago bezala, bai nor bere etxean bai haurzoan «maistra»ren bati ikasten ziotelarik.

Artisau honek erabiltzen duen goru bikoitz bixia orain dela hirurogeiren bat urte eskuratu zuen Berako etxe batetan. Artilezko jantzi esberdinak egiten ditu batik bat; hala nola txamarrak, jertsia, galtzerdiak eta antzekoak.

Otros datos:

El hilado casero que ha sido una labor muy extendida entre las mujeres de nuestro medio rural, se iba aprendiendo desde temprana edad como una tarea más de la educación de las niñas, bien en la propia casa o como en este caso en la de alguna vecina «maestra» en el oficio.

